



2/2017 AKTA

2017ko martxoaren 8an, goizeko 12:00etan, Vitoria-Gasteizen, **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen osoko bilkura** bildu da. Deialdia aurrez bidalita, ertzean zerrendatuko bazkideak bertaratu dira, honako gai-zerrenda hau jorratzeko:

1. Ebazteko dauden erreklamazioen jarraipena

BATZORDEBURUA:

Javier Bikandi Irazabal jn.

KIDEAK:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino and.

Ana Arkotxa Azkue and.

IDAZKARIA:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino and.

Batzordeburuak jakinarazi du Gobernu Kontseiluak oraindik ez duela jaso batzordekideen ordainsaria zehazteko proposamena, izapideak egin ditzan, batzordearen sorrera arautzen duen 2.2 dekretuan ezarritakoarekin bat etorrira. Ebazteko dauden erreklamazioak aztertzeari ekin diote.

Segidan, batzordeburuak 2017/000009 erreklamazioa jorratzeari eta aurkeztutako ebazpena aztertzeari ekin die. Koldobike Uriartek esleituta dauka, txostengile gisa.

Txostengileak erreklamazioa aztertzeiko erabili diren oinarriak azaldu ditu, eta erreklamazioa baiesteko proposamena egin du. Erreklamazio-egileak Durangoko Udalean aurkeztu zuen erreklamazioa, eta administrazioaren isiltasunez informazioa ukatzeari buruzkoa da. Bertan adierazten du Durangoko Udalak organo eskudunari, hots, Bizkaiko Foru Aldundiari, bidali behar diola eskaera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legearen 19.4 artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta 10 eguneko epea duela, horretarako. Ondoren, aho batez onartu dute ebazpen-proposamena.

Segidan, batzordeburuak 2017/000011 erreklamazioa jorratzeari eta aurkeztutako ebazpena aztertzeari ekin die. Koldobike Uriartek esleituta dauka, txostengile gisa.



Txostengileak erreklamazioa aztertzeko erabili diren oinarriak azaldu ditu, eta erreklamazioaren zati bat baiesteko proposamena egin du. Erreklamazio-egileak Euskal Karate Federazioan eta Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzan aurkeztu zuen erreklamazioa, eta administrazioaren isiltasunez informazioa ukatzeari buruzkoa da. Bertan aitortzen du zein informazio eskuratzeko eskubidea duen eta zein ez, pribatua delako. Eztabaidatzen da gradu-txartelen nortasun juridikoaren gainean eta kirol- eta federazio-jardueretan eginkizunari buruz. Bozketara menderatuta gehiengoak proposamena onartzen du.

Segidan, batzordeburuak 2017/000020 erreklamazioa jorratzeari eta aurkeztutako ebazpena aztertzeari ekin die. Koldobike Uriartek esleituta dauka, txostengile gisa.

Txostengileak erreklamazioa aztertzeko erabili diren oinarriak azaldu ditu, eta erreklamazioa zio formalez baiesteko proposamena egin du. Erreklamazio-egileak Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatean aurkeztu du erreklamazioa, eta administrazioaren isiltasunez informazioa ukatzeari buruzkoa da. Izan ere, erreklamazioa lotzen zaion administrazioaren entzunaldi-epe barruan bidali zioten eskaeraren erantzuna. Ondoren, aho batez onartu dute ebazpen-proposamena.

Segidan, batzordeburuak 2017/000021 erreklamazioa jorratzeari eta aurkeztutako ebazpena aztertzeari ekin die. Koldobike Uriartek esleituta dauka, txostengile gisa.

Txostengileak erreklamazioa aztertzeko erabili diren oinarriak azaldu ditu, eta erreklamazioa zio formalez baiesteko proposamena egin du. Erreklamazio-egileak Sasieta Mankomunitatean aurkeztu du erreklamazioa, eta administrazioaren isiltasunez informazioa ukatzeari buruzkoa da. Izan ere, erreklamazioa lotzen zaion administrazioaren entzunaldi-epe barruan bidali zioten eskaeraren erantzuna. Ondoren, aho batez onartu dute ebazpen-proposamena.

Segidan, batzordeburuak 2017/000022 erreklamazioa jorratzeari eta aurkeztutako ebazpena aztertzeari ekin die. Koldobike Uriartek esleituta dauka, txostengile gisa.

Txostengileak erreklamazioa aztertzeko erabili diren oinarriak azaldu ditu, eta erreklamazioa baiesteko proposamena egin du. Erreklamazio-egileak Debagoieneko Mankomunitatean aurkeztu du erreklamazioa, eta administrazioaren isiltasunez informazioa ukatzeari buruzkoa da. Informazioa emateko 10 eguneko epea duela jakinarazten dio. Ondoren, aho batez onartu dute ebazpen-proposamena.



Segidan, batzordeburuak 2017/000016 erreklamazioa jorrateari eta aurkeztutako ebazpena aztertzeari ekin die. Koldobike Uriartek esleituta dauka, txostengile gisa.

Txostengileak erreklamazioa aztertzeko erabili diren oinarriak azaldu ditu, eta erreklamazioa baiezteko proposamena egin du. Erreklamazio-egileak Gazteria eta Kirol Zuzendaritzan aurkeztu du erreklamazioa, eta administrazioaren isiltasunez informazioa ukateari buruzkoa da. Informazioa emateko 10 eguneko epea duela jakinarazten dio. Ondoren, aho batez onartu dute ebazpen-proposamena.

Azkenik, herritar baten kasua jorrate dute: herritarrak mezu elektronikoa bidali dio Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeari, eta Santurtziko Udalak ukatu dion informazioa eskatu dio. Izan ere, herritarrak informazio bera eskatu zion ARARTEKOARI, baina eskaera egin eta hiru asteko epea amaitu ondoren, ez du erantzunik jaso. Eskaeraren edukia eta beraren alderdi formalak aztertu ondoren erabakitzen da berari erantzutea eta zein den Euskal Autonomia Erkidegoan araudi aplikagarria gardentasunaren arloan jakinaraztea.

Besterik ezean, bilera amaitutzat eman da 14:30ean.

Idazkaria
Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino

Batzordeburua
Javier Bikandi Irazabal

Kidea
Ana Arkotxa Azkue